

Herri eresia

- Oraintxe jakin dut. Nire doluminik sentikorrenak ahaide eta jakinlariei. • Lurrak gozo har zaitzala. • Itsasargia itzalita, lurmuturra non den ikasi dugulakoan. Euskal Herriaren bizi-raupena xede, mila esker, Azurmendi jauna. • Gure aberriaren muina bilatzen lagundu digun jakintsuetako bat joan zaigu.
- Goian bego. • Biziki sentitzen dut, eredu ikaragarria izan da niretzat eta Euskal Herriarentzat. • Mundu garaikidea euskaraz altxatu digun hargina, iraun beza gugan luze. Besarkada estua senideei eta Jakineko kide guztiei. • Agur eta ohore. Eta, horrekin batera, nire eskerrik beroenak, horrelako pertsona bat izateak zoriontsu egin gaituelako. • Lagun eta gertukoei besarkada, haien atsekabeen bat eginik. • Euskal munduari aparteko duintasuna eman zion zegamarra.
 - Gaur ez zait ezer ateratzen. Oraindik emozioak jota arnasari buelta ezinean nago. Berria jaso dudanean, aspaldi Jakini agindutakoa idazten nenbilen, Jakini eman aurretik Joxek irakurtzea nahi nuelako. Bizitzaren legea da, baina asumitze-ko gogorra. Ezin ditut bihotzaren taupadak lasaitu. Gogora datorkit azkenengoz berarekin egon nintzenean; ezertara ere ez zetorrela, honela bota zidan: «Kepa, gero ez zegok ezer!». «Bai, Joxe», esan nion, «baina nik egotea nahi diat!». Berririk txarrena emateko izan bada ere, eskerrak deitzeagatik.
 - Nire miresmena, irakurle apal honen aldetik. • Beti miretsi dut, pena handiz hartu dut berria. • Zegama bezalako herri koxkor batek zeinen pertsona handia oparitu digun. • Euskal Herriak izan duen pentsalari handietan handiena. Euskaldun eta euskal herritar izateaz harrotzen zaituena. • Familia osoaren doluminak haren familiari eta lagun guztiei. Goian bego. • Oso oroitzapen ederrak ditut Joxerenak, bai horixe!
- Nik Egin Irratiaren garaian izan nuen elkarrizketa batzuk egiteko aukera, eta, harrezkero, beti jarraitu dut haren obra. Gizon jakintsua, eskuzabala, atsegina zen, eta, aldi berean,

apala, oso apala zen. Foku guztietatik kanpo, oso diskretua zen sentipena ematen zidan neuri. Zorionekoak gu, gure bizialdian zehar horrelako pertsonekin elkartzeko modua izan dugunok! Beste hainbatekin moduan, haren obra geratuko zaigu! Besarkada estu bat etxekoei eta hurbilekoei! • Pentsamenduaren alorrean ez du inork Joxek baino gehiago egin gu guztiok gizontzeko eta andretzeko, eta beharbada ez da hain harritzeko gaur bihotzean sentitzen dugun samintasun hau, denok umezurtzago egin gaituela esaten diguna. Bihotzez botako dugu faltan, bere handitasunagatik, bere bihotzagatik, bere bihotz ezin handiagoagatik. Esker oneko utzi gaitu, adieraz dezakeguna baino gehiago. Eta triste, berak nahiko lukeena baino askoz tristeago. • Hunkituta gaude. Pertsonak egin du bere bira munduan, bukatua dago. Utzi duena lur planetako ur molekulak bezain beharrezkoa da planetaren izkina (euskaldun) honentzat, ekinbidez eta jakinbidez. • Pena handia, hainbeste behar dugun euskal pentsalari bat joatea. Jarraipena izango duen itxaropenarekin. • Herria berregiten jarraituko dugu, bai horixe, zure omenez! • Beste askoren antzera, zorionez, Joxe Azurmendi eredutzat dut euskararekiko eta Euskal Herriari buruzko nire irizpideetan. • Zegamar eta goierritar eta nola ez euskaldun eta ekintzaile bati ez zaio ohorezko agurra eskaini. Erabaki ezazue, arren, euskaldun herritarrok nolako agurra eta non eskain diezaiokegun. Herritarrontzako ohore bat delakoan nago. Noski, zuen erabakiaren menpe gaude. Mila esker. Jakineko langile guztiok agurtzen zaituztet. • Beti oroituko dut bizitzak zu ezagutzeko eman didan aukera, altxor maitagarrien artekoa zaitut. • Mila esker Herri honi eman diozun guztiagatik. • Jarraipenaren esperantzarekin, Joxek beti nire memorian bizitzen jarraituko du. • «Ataunen eta Zegaman, gauez ikusi eta egunez eraman», dio atsotitzak. Joxe Azurmendi zegamarrak, ordea, gauez eta egunez ikusi eta eman dio Euskal Herriari, biziberritzeko, saski beteko uzta eta hazia.